

IBAÑETA

Nafarroa Karlomagno-ren tropek okupatzen dutela antzezten ditu Ibañetak. Batzuk okupatzaileari aurre egiten, besteek harekin kolaboratzen. 778 urteko gertakariak. Orreagan Euskaldunen garaipenaren data hain justu, legendari oihartzun eginez, Larzabal-ek 1968-an idazten du, frankismoaren kontrako Euskaldunen erresistentzia armatuaren birsortzearen urtea, antzeztan epiko bat non pertsonaiak garaikideen antza duten. Berrogei urte berantago, gaurkotasun bat agertzen du: Euskaldunek ez dute oraino aterabide bat atzeman ahal izan, herri nortasuna betikotu galdeari erantzuteko eta borroka armatuaren burrunbek segitzen dute. Parean begiratzea hobe.

Ibañeta antzerki sorkuntza, Hitzegin proiektu orokorraren ardatza da, Ander Lipusen lanaren ezagutaraztea bestalde. Herri antzerkia gogoeta kolektiboen iturri edo tresna izan behar duela pentsatuz, Piarres Larzabalen bizi engaiatua omenduz denbora berean, 2009ko udaberrian mintzaldi saio bat uztartuko da Ibañetaren bigarren emanaldi saioari. Partehartzaileak batez beste Jean-Pierre Massias, Gabi Mouesca, Xabier Itzaina, Inigo Iruin.

Piarres Larzabal (1915-1988)-ek 100 euskarazko antzeztan baino gehiago idatzi ditu. Larruneko mazelan sortua, bere apaizgoa langileen eta jende xumearen ondoan engaiatuz eraman du. Alemaniar okupazio denborako erresistente izana gaitik, Polonian preso egon zen. Frankismo-tik ihesi eta Euskal Herriaren askatasunaren alde egiten zuten iheslariekin. Anai Artea, iheslarien sostengu elkartearen sortzeko indar guziak eman ditu, hainbat apezkide eta hierarkia katolikotik bereiztea erran nahi bazuen ere. Larzabal Euskaltzaindian sartzen da. Bere obra anitz antzerki klasikoak bihurtu dira, Ibañeta barne. Hurbiletik bizi ukan dituen gertakariak lotzen dira bere obrak. Ibañetan, Karlomagno-ren indarrak ordezkatzan dituen pertsonaiak Apfel deitzen da, alemanez itzuliz, sagarra frantsesez eta manzanas gaztelera erran nahi duena. Jakin behar da, 1968-an, Manzanas komisarioa, ETA-k hil duela.

Jatorriz Markinakoa (Bizkaia), **Ander Lipus** zuzendari artistikoak, antzerkian duen eskarmentu eta pasio paregabeak sartu ditu, iparraldeko herri antzerkian murgiltzeko, Artedrama egiturarekin. Eskola euskaraz burutu eta, Madril-eko William Laytonen "laboratorio del drama"n formatu zen, Bilbon "Antzerkiola Imaginarioa" antzerki laboratorio gunea 97an sortu aitzin. Kairo, Miami eta Buenos Airen, besteak beste Yuri Sam -aurkeztu zuen euskaraz arrakasta berezia bilduz. Azken urteetan, Hala mintzatu zen Zappatustra, Bertsotranpa obretan preziatzen ahal da, underground mundutik bertsolarien lurraldera lerratzen delarik naturalki.

Ixo! Antzerkia hastera doa. Pierres Lartzabalen IBAÑETA drama epikoa ez dut nik nahi dudalako muntatu, guztiok behar dugulako baizik. Kristian Etxaluz, Haize Berri eta bidaia hontan parte hartu duzuen guztioi, eskerrikasko! Nik, ez daukat gauza askorik esateko. Nire lagun, Jon Gerediagak, *Demiurgoaren promesa* poeman esango lukeen bezala:

...ez daitezela hona gertura gorpu-lapurren gurdi ilunak
ez dezatela beleek zapal nire amets sortzaileen soroa
alez ale, unez une sortzera noa gizakien sasoi berriak
kiskalitako adarrez egingo dut euren hezurdura apala
aurrien buztinean ernatuko da haragiaren bihotz-begia
porrotaren kea izango da gorpuen ezdeusaren arnasa
eta mirariak ohar dadin izanen dena, izandakotik hazia
gau eta egun jainkotuko dut den eta ez denaren bizitza

...eta **mintza!** Teloia jeisterakoan, mintza zaitel! Mintza gaitezen! Euskal Herriaren arazoaz, entzun sufrimendu, hutsune eta garraixiak, besteenak eta gureak. Zerbait egin beharko dugu, zerbait aldatu, zerbait gainditu. Mirari bat? Obra hau ez dut niretzat egin, guretzat egin dut. Mekaguenjios!

ander lipus

Jokolariak:

Maitena Tikoipe
Laida Harlouchet
Arantxa Idieder
Kristiane Etxaluz
Salbat Faltxa
Jean-Marie Irigoien
Iban Ithurbide
Beñat Bidegain
Amaia Boloki
Xabi Elgart
Manex Erdozaintzi
Mattin Errekart
Maite Goihenetxe, Mateo
Mark Emedy
Jean-Bernard Negeloua
Filip Tikoipe
Eñaut Larralde

Idazlea: Piarres Larzabal

Aintzin predikua: Antton Luku, Ander Lipus

Zuzendari artistikoa: Ander Lipus

Musika sortzailea: Jean-Christian Irigoyen

Musikalariak: Jean-Christian Irigoyen, Dominique Barreix

Alde plastikoaren prestakuntza: Ainara Gurrutxaga, Urko Redondo

Argien diseinua: Oier Ituarte

Instalazioa: Gonzalo eta Pette Etxebarria

Taulagaina, teknika: Xuburu, Mathieu

BALDINTZA TEKNIKOAK –

Lekuaren antolakuntza : antzerkia muntatua izan da antzoki ez diren espazioetan aurkezteko, 300/400 jendetza aitzinean mugatuz (beharrean). Herri giroan izateko ; antzerkia ez da ikusgarri bat, kultura ekintza baizik.

Ikus plano

- Ezena tokiaren neurriak (urdinez) : 14m luzaeran, 6m zabaleran, 5 m goratasun (argientzat); barne bazterrak jokalarientzat (gorriz).
- Bi musikarien lekua (izokin kolorea).
- Instalazioa (horiz) : 3 m (2 pantaila, 2 bideo emaile, 2 arrain ontzi)
- Publikoa ahal bezainbat harmailetan.

Ezker pareta bat egoki daiteke, ezena tokia eta publikoaren espazioa oihalez inguratuz.

Instalazioa eguraldiaren arabera eta gauaz kanpoan eman daiteke edo publikoak zeharkatuko duen beste leku batean.

Alda gela bat, 17 jendeentzat. Ispilu bat & edateko ura gutxienez.

Ezena tokia, argiak eta egitura, 2 teknikari gure gain. Antolatzaileari, harmaila edo jarlekuak, gela iluntzea beharrean ; muntatze/lektze taldearen parte bat.

Muntaketa : bezperan edo egunean bertan, lekuen arabera. 4 oren gutxienez. Antolatzaileari, 2 edo 4ko muntaketa/leku huste talde bat,

Lekuaren hustea : emanaldiaren ondotik, antzerki taldea eta antolatzaileen artean.

Bereziki zaindu : ezena toki eta publikoaren arteko hurbiltasuna, akustika obra ahal bezainbat gozatzeko (ez dago soinu hedatzailerik jokalarientzat) ; ilun osoa.

BESTE BALDINTZAK –

PREZIOA : 1 100 € + materialaren garraioa (2 €/kmka) + 23 bazkari (edo afari, edo bufeta).
Baldintza egokituak ahal mugatuak dituzten elkarreentzat, elkarrekin zehazteko.

Komunikazioa : 50 kartel eskainiak ; 500 liburuxka.

Emanaldi sasoia : 2009ko udaberria (martxoaren 6tik, maiatzaren 7 arte)

Antolatzaileak: HAIZE BERRI (00 33 5 59 37 85 79 ; 00 33 670 635 394)

ARTEDRAMA (00 34 615 779 511)

Partaideak: Akitania/Euskadi ; Conseil Général P.A. ; Euskal Kultur Erakundea ; Udalbide ; Iholdi Oztibarre herri elkargoa ; Izura Azmeko herria.